

8. ikasgaia.

ANTOLAKUNTZA JUDIZIALA (I): BOTERE

JUDIZIALAREN GOBERNUA

1. Sarrera

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Funtzioak (BJLOaren 107. artikulua eta hurrengoak)

Osaketa (EKaren 122.3. artikulua eta BJLOaren 111. artikulua eta hurrengoak)

Organoak (BJLOaren 122. art.)

3. Gobernu Gelak

Osaketa (BJLOaren 149. art.)

Funtzioak (BJLOaren 152. art.)

4. Auzitegi eta entzutegien Presidenteak

Funtzioak (BJLOaren 160. art.)

5. Geletako Presidenteak (BJLOaren 165. art.)

6. Epaitegiak

- Epaile dekanook (BJLOaren 166. art.)
- Epaileen batzarra (BJLOaren 169. eta 170. artk.): motak
- Epaileak (BJLOaren 165. art.)

7. Auzitegien ikuskapena

Kontzeptua (BJLOaren 171.1. art.)

Ikuskapen motak:

- Ikuskapen nagusia/gorena (BJLOaren 171. art.)
- Ohiko ikuskapena (BJLOaren 172. art.)
- Barruko ikuskapena (BJLOaren 174. art.)

1. SARRERA

Estatu osoan gertatuko diren gatazka guztiez arduratu ahal izateko, hainbat organoz osatua dago Botere Judiziala; bakoitzak bere eskumen du eta bere lekuan kokatuta dago. Begi bistan denez, eta aurreko ikasgaietan dagoeneko aipatu dugun moduan, Botere Judiziala gobernatzeko, nolabaiteko egiturak egon behar du; ondorioz, bi gauza bereizi behar ditugu: alde batetik, funtzio jurisdikzionala, eta, bestetik, Botere Judiziala edo organo jurisdikzional guztiak gobernatzeko eta antolatzeko funtzioak.

Gaur egun, Botere Judizialaren gobernuan zeregin duten organoak, ikasgai honetan aztergai izango ditugunak, honako hauek dira: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Gobernu Gelak, auzitegietako Presidenteak, Geletako Presidenteak, eta, pertsona bakar batek osatutako organoetan —hau da, epaitegietan—, epaileak berak, epaile-dekanoa eta epaileen batzarra.

Dena den, Konstituzioa aldarrikatu aurretik, gogoratu beharra dago Botere Betearazlea arduratzen zela gobernu funtzio horietaz, eta beraz, organo jurisdikzionalen independentzia erabat urratzen dela. Konstituzioa aldarrikatu eta gero, ordea, Botere Betearazleari eskumen horiek kendu zitzaizkion, eta, autogobernurako organo bat eratzeko asmoz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia sortu zen. Hala, Botere Judiziala, beste bi botereekin batera, hirugarren botere politiko bat izatera ailegatu egin da.

2. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Dagoeneko hainbatetan aipatutako Konstituzioaren 122.2. artikulua xedatzen duenez, Botere Judizialaren gobernu-organoa da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia; horrez gain, haren Presidente Auzitegi Goreneko Presidente izango da aldi berean (Konstituzioaren 122.3. art. eta BJLOaren 105. art.). Halaber, Kontseiluak Estatu osoan gauzatuko du bere eskumena (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 104. art.).

Kontseilu Nagusiaren **eginkizunak** edo funtzioak Botere Judizialaren Lege Organikoaren 107. artikuluan agertzen zaizkigu zerrendatuta; horien

artean, batzuk erabakiak hartzeari buruzkoak, eta beste batzuk, berriz, txostenak egiteari buruzkoak, honako zerrenda honetan ikus dezakegun bezala:

- Presidentea hautatzea
- Konstituzio Auzitegiaren magistratu bi hautatzea
- Epaitegi eta auzitegiak ikuskatzea (kontseiluari ikuskatze gorenaren dagokiola esaten da)
- Epaille eta magistratuari buruzko erregimena ezartzea
- Auzitegi Gorenaren magistratuak eta auzitegien presidenteak aukeratzea
- Gai jakin batzuei buruzko legeen aurreproiektuak aztertzea, eta haien gaineko txosten bat egitea (BJLOaren 108. art)
- Gobernuak, Estatuko Fiskal Orokorra izendatzean, entzunaldia eman beharko dio Kontseilu Nagusiari.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren **osaketari** dagokionez, Konstituzioaren 122.3 artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 111. artikulua eta hurrengoek diotena kontuan hartu beharko dugu. Lehenik eta behin, Kontseilu Nagusiaren barruan, Presidentea dugu, esan bezala, aldi berean Auzitegi Goreneko Presidentea ere izango dena. Bigarrenez, bost urteko kargua betetzen duten 20 batzarkidek osatzen dute (BJLOaren 112. art.): Kongresuak eta Senatuak horietatik hamarna hautatuko dituzte, honela: hamarreko horietatik, lau jarduera juridikoan 15 urte baino gehiago daramaten eta gaitasun onartua duten abokatu eta juristen artean aukeratu behar dira; eta gainontzeko seiak, epaille eta magistratuen artean. Bi kasuetan, hiru bosteneko gehiengoaz hautatu behar dira batzarkideak.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren gobernu-funtzioak aurrera eramaten dituzten **organoen** eginkizunak (BJLOaren 122. artikulua eta hurrengoak) honako hauek dira:

- Presidenteak Estatuko aginte judizial gorenaren izango du; Erregeak izendatuko du, Kontseilu beraren hiru bosteneko gehiengoko proposamenaz. Presidente izateko, hautagaiak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren batzarkidea izateko gutxieneko ezaugarriak

bete beharko ditu –hots, karrera judizialeko kidea izatea edo gaitasun onartua duen abokatu edo jurista-.

- Presidenteordea presidentea ordezkatzear arduratuko da, hala dagokionean.
- Osoko Bilkura presidenteak zein batzarkideek osatuko dute.
- Hiru batzordek ere jardungo dute: diziplina-batzordea, kalifikazio-batzordea eta batzorde iraunkorra. Lehenengoari dagokionez, txosten diziplinarioak instruitzeaz arduratuko da eta, halaber, epaileei zein magistratuei egindako falta oso larriengatik dagozkien zigorrak ezartzeaz. Bigarrenak, hots, kalifikazio-batzordeak, Osoko Bilkurari berak egin beharreko izendapenez informatzea du eginkizun. Eta, azkenik, batzorde iraunkorrak honako hauetaz arduratuko da: Osoko Bilkurako saioak prestatu, han hartutako hitzarmenak betearazi eta epaile edo magistratu batzuen izendapenei buruz zein haien nahitaezko jubilazioaz erabaki .

3. GOBERNU GELAK

Gobernu Gelak Auzitegi Gorenean, Auzitegi Nazionalean zein Justizia Auzitegi Nagusietan eratuko dira (organo kolegiatuetan, beraz, Probintzia Auzitegietan izan ezik). Gela horien **osaketa** (BJLOaren 149. art.) honako hau da: organo jurisdikzionalaren presidentea, organo jurisdikzional jakin hori osatzen duten gela guztien presidentea, eta zenbait magistratu; azken horiek kopurua aipatutako bi multzoen partaideen kopuru bera izango da.

Justizia Auzitegi Nagusien Gobernu Gelen osaketaren kasuan, komenigarria litzateke ñabardura bat egitea, aipatutako kideei dagokien Autonomia Erkidegoko Auzitegi Probintzietako Presidenteak gehitu beharko zaizkio eta (BJLOaren 149.2. art.). Ondorioz, magistratuen kopurua ere proportzio horretan handituko da, bi multzoek —batetik, organoetako eta geletako presidentek, eta, bestetik, magistratuek— kide kopuru bera izan behar baitute.

Gobernu Gelen **eginkizunei** dagokienez, esan dezakegu beren eremuan funtzio jurisdikzionala era egokian burutzen dela zaintzeaz arduratu behar

dutela oro har. Dena den, Gobernu Gela horien funtzio zehatzak Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152. artikuluan zerrendatzen dira: auziak banatzeko arauak onartzea, txostenak egiteko txanda onartzea, gela eta sekzioen osaketa-txanda onartzea, urteroko ordezkoko magistratuak Kontseilu Nagusiari proposatzea, ikuskatzea, eta abar.

4. ENTZUTEGIETAKO PRESIDENTEAK ETA GELETAKO PRESIDENTEAK

Auzitegi Goreneko, Auzitegi Nazionaleko, eta Justizia Auzitegi Nagusietako Presidenteak ere gobernu-organoak izango dira. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatzen ditu horiek, bost urtetarako, eta haien **eginkizunak** (BJLOaren 160. art.), besteak beste, honako hauek dira:

- Gobernu Gelara dei egitea, eta baita hartan buru izatea eta zuzentzea ere
- Gobernu Gelako gai-zerrenda finkatzea
- Justizia Administrazioaren funtzionamendu zuzena zaintzea, dagokion esparruan
- Justizia Auzitegi Nagusiaren Presidentea Botere Judizialaren ordezkaria izango da bere Autonomia Erkidegoan (BJLOaren 161.1. art.).

Geletako Presidenteek ahalmen jurisdikzionala egikaritzez gain, gobernu-funtzioak ere izango dituzte aldi berean. Beraz, bere menpe dagoen Justizia Gelako zuzendaritza administratiboa dagokio, eta baita auzitegi jakin horretako funtzionarioekiko legeak esleitzen dizkion funtzio diziplinarioak ere (BJLOaren 165. art.).

5. EPAILEAK

Atal honetan, pertsona bakarreko organoen gobernua aztertuko dugu. Epailleek ere, Geletako Presidentearen kasuan bezalaxe, ahalmen

jurisdikzionala egikarrituko dute, baina, epaitegiak pertsona bakarrez osatutako organoak izanik, funtzio jurisdikzionalak eta administratiboak bat egiten dute pertsona berarengan. Epaitegien gobernuaz arduratuko diren organoak hiru izango dira, epaileak berak, epaile dekanok eta epaileen batzarra, hain zuzen ere.

Epaile dekanok

Epaile dekanoa barruti judizial bakoitzaren gobernu-organoa izango da (epaitegi multzo bat dagoen eremua da barruti judiziala).

Hamar epaitegi edo gehiago dituzten herrietan bakarrik hautatzen da dekanoa (BJLOaren 166.1. art.), dagokion barrutiko epaitegietakoko epaile titularren artean egindako bozketa baten bitartez. Hamar epaitegi baino gutxiago dituzten herrietan, berriz, epaile dekanoren eginkizunak mailarik handiena duen magistratu edo epaileak hartuko ditu bere gain.

Epaile dekanoren **eginkizunik** garrantzitsuenak honako hauek dira: auzien banaketa aldeztatik ezarritako arauen arabera egiten dela zaintzea, epaileen batzarreko burua izatea eta batzar horiek zuzentzea.

Epaileen batzarra

Herri berean kokatzen diren organo jurisdikzional guztien bilera dugu epaileen batzarra, eta horiek izan ditzaketen arazoei buruz mintzatzea du helburu. Batzar horiek hiru motatakoak izan daitezke: ohikoa, jurisdikzio-ordena jakin batekoa, eta probintzia edo Autonomia Erkidegokoa. Lehenengoari dagokionez, esan dezakegu herri bateko epaitegi guztiek ohiko batzarrean parte hartzen dutela (BJLOaren 169. art.); bigarreanean, berriz, herri bereko jurisdikzio-ordena jakin bateko epaitegiek soilik (BJLOaren 170.2. art.). Azkenik, eta hirugarren motari dagokionez, hots, Probintzia edo Autonomia Erkidegoko batzarri dagokionez, lurralde horietako epaitegi guztiak bilduko dira.

Epaileak

Aurretik adierazi dugun moduan, epailearen figurak ahalmen jurisdikzionalari zein funtzio administratiboari dagozkion funtzioak hartuko ditu bere gain (funtzio bikoitza betetzen dutela esaten da), organo hori organoa pertsona bakarrekoa baita. Epaille bakoitzak bere epaitegian dituen gobernu-eginkizunak Botere Judizialaren Lege Organikoaren 165. artikuluan aurki ditzakegu; besteak beste, honako hauek dira aipagarrienak:

- Barruko ikuskapena
- Funtzio diziplinarioa
- Auzitegi-tako Presidenteei bere jarduerari buruz kontu ematea

6. AUZITEGIEN IKUSKAPENA

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 176. artikulua jarraian aztertuko dugun auzitegien ikuskapenaren kontzeptua eskaintzen digu, bai zentzu positiboan, bai zentzu negatiboan. Edonola ere, argi eduki behar dugu bide horretatik ebazpen judizial baten edukia ezin izango dela inoiz aldatu.

Zentzu positiboan, ikuskapen horrek ahalbidetzen du auzitegi edo epaitegien funtzionamendu eta langile jurisdikzionalen betebeharren burutzeari buruzko datuak ezagutzeko beharrezkoak diren jarduera edo azterketa guztiak egitea.

Zentzu negatiboan, berriz, ikuskapenak ezin izango du jardun epaile eta auzitegiek justizia egikaritzean interpretatzen eta aplikatzen dituzten arauen inguruan. Hortik ondoriozta daiteke ikuskapena funtzio administratiboan gainean –auziak izapidetzeko azkartasuna, esaterako- egikaritzen dela, baina ez, ordea, organoen funtzio jurisdikzionalaren gainean. Hau da, Justizia Administrazioaren funtzionamendua kontrolatzean eta begiratzean datza ikuskapena.

Ikuskapen-eremuan bereizketa bat egin beharra dago, hiru motatako ikuskapen aurki baititzakegu:

- **Ikuskapen gorena edo nagusia** (BJLOaren 171. art.) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokio, gobernu-organoren goren bera delako, eta, ondorioz, Kontseiluak Botere Judizialaren

Antolakuntza osatzen duten organo jurisdikzional guztiak ikuska ditzake.

- **Ohiko ikuskapena** (BJLOaren 172. art.), berriz, Auzitegi Goreneko presidenteak egiten du bere auzitegiko gela eta sekzio guztietan; Justizia Auzitegi Nagusietako Presidenteek beren lurralde-esparruetan –hots, dagokion Autonomia Erkidegoan kokaturiko organo guztietan-; eta, Auzitegi Nazionaleko Presidenteak Entzutegi Nazionaleko Geletan eta Epaitegi Zentraletan.
- **Barruko ikuskapena** (BJLOaren 174. art.) epaileei eta sekzio zein geletako presidenteei dagokie, haiek ebazten dituzten auzietan, hau da, beren eskumen-esparruan.